Kontratuen erregistroa 2024ko ekainean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko ekainean 51.470 pertsona kontratatu dira, iazko ekainean baino 3.446 gutxiago (% 6,3ko beherakada). Maiatzarekin alderatuta, berriz, 7.645 pertsona gehiago kontratatu dira (% 17,4ko gorakada).

• SEXUA

Ekainean 26.589 gizon eta 24.881 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du bai gizonen artean bai emakumeen artean, gehiago emakumeen artean; % 6,9 (-1.852 emakume) eta % 5,7 gizonen artean (-1.594). Hileko konparaketan, gizonen kontratazioak % 19 egin du gora (+4.252); emakumeen kontratazioak, berriz, % 15,8 egin du gora (+3.393).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 33,71 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (33,06) emakumeen artean (34,40) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Gipuzkoan izan dira (32,60 urte), eta helduenak, berriz, Araban (34,62).

Laguntza-teknikarien profilekoak dira gazteenak, batez beste 28,39 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutakoak dira, 41,91 urteko batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (32,15 urte eta 34,57 urte, hurrenez hurren); aldea handiagoa da gizonen artean (30,34lanaldi partzialekoak eta 33,97 lanaldi osokoak. Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino apur bat handiagoa da (33,99 vs 33,61).

• JATORRIA

2024ko ekainean kontratatutako pertsonen % 18,3k atzerriko nazionalitatea du, iazko ekainean baino puntu 0,4 gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 54,8k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 12,4k Afrika iparraldekoa, % 10,8k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7,4k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa, % 6,9k Europako Erkidegokoa ez den herrialde batekoa eta, azkenik, % 6,4k Asiakoa. Bertakoak (33,28 urte) gazteagoak dira atzerritarrak (35,62 urte) baino. Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik etorritakoak dira gazteenak 35,31 urterekin, eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 37,21 urterekin.

Azken hilabetean, Latinoamerikatik etorritako taldean igo da gehien kontratatutako pertsonen kopurua, bai balio absolutu zein erlatiboetan, kontratazio maila esanguratsua duten jatorri guztien artean; 196 pertsona gehiagorekin eta % 3,9ko hazkunde erlatiboarekin. Aldiz, Ipar Afrikako jatorria dutenen artean jaitsi da gehien, 338 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 22,5eko murrizketa).

Urteko arteko saldoari erreparatuz, murriztu egin da kontratazioa kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan. Balio absolutuetan beherakada handiena izan duen jatorria Afrikako iparraldeko biztanleria da, 134 pertsonatan jaitsi baita (-%10,3); balio erlatiboetan, berriz, jai-

tsiera handiena Europako Erkidegotik etorritako pertsonen artean izan da, % 15,7ko beherakadarekin (-121 pertsona).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 40k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 25,7k batxilergoko ikasketak ditu, % 19,6k Lanbide Heziketakoak eta % 14,4k unibertsitatekoak.

Hileko erreferentzian, handitu egin da ikasketa profil guztietako pertsonen kontratazioa. Balio absolutuetan, batxiler-ikasketak dituzten pertsonak hazi dira gehien, 3.373 pertsona gehiago (+%34,2); balio erlatiboetan, hazkunderik handiena Lanbide Heziketako ikasketak dituztenen artean izan da, % 39 gehiago (+2.828 pertsona).

Urteko erreferentzian behera egin dute ikasketa-profil guztietan kontratatutako pertsonek, batxilergoko ikasketak dituztenak izan ezik, profil honetako 349 pertsona gehiago kontratatu baitira (+%2,7). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan izan da, 1.889 pertsona gutxiagorekin eta % 8,4ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena unibertsitate-ikasketak dituztenen kontratazioak izan du, % 13,7 gutxiagorekin (-1.176 pertsona).

KONTRATUEN KOPURUAK

Ekainean, EAEn 69.623 kontratu sinatu dira, horietatik 14.750 mugagabeak dira (guztietatik % 21,2). Ehuneko handia da, 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu aurreko serie historikoarekin alderatuta, baina 2022ko otsailetik izandako txikiena da. 2,2 puntu jaitsi da maiatzarekin alderatuta, eta 3,5 puntu 2023ko ekainarekin alderatuta. Kontratu mugagabea dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 22,8 eta emakumeen artean % 19,6 da.

Kontratazioa % 10,9 gehitu da aurreko hilaren aldean (6.829 kontratu gehiago). Hala ere, kontratu mugagabeak % 0,3 soilik igo dira (+45) eta aldi baterako kontratuak, berriz, % 14,1 (+6.784). Aurreko urtearekin alderatuta, % 4,5 jaitsi da kontratazioa (3.284 kontratu gutxiago), baina murrizketa ia osoa kontratu mugagabeetan gertatu da (-3.270 kontratu, % 18,1 gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du profil gehienetan. Kontratazioan igoera handienak izan dituzten jarduerak honako hauek izan dira: informazioa eta komunikazioa (+2.390), artistiko eta aisialdikoak (+1.617) eta merkataritza (+1.466). Aitzitik, hiru dira jaitsierak izan dituzten jarduerak: ostalaritza (-1.098), lehen sektorekoak (-644) eta hezkuntza (-19).

Aurreko urtearekin alderatuta, behera egin du kontratazioak jarduera guztietan, informazioan eta komunikazioan izan ezik, % 95,5 igo baita (+2.793 kontratu) eta artistikoetan (+%18,9, 748 kontratu gehiago). Aitzitik, kontratazioa gehien murriztu diren jarduerak, administrazio-

jarduerak (-2.110 kontratu, -%27,2ko murrizketa), ostalaritza (-1.039, -%9,7) eta manufaktura-industria (-632, -% 6,2) izan dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, kontratazioak gora egin du okupazio gehienetan. Kontratazioa gehien igo den okupazioa, bai balio absolutu zein erlatiboetan, laguntza-teknikarien profilean izan da, 2.515 kontratu gehiago eta % 44,2ko igoerarekin. Aldiz, beherakadarik handiena, balio absolutuetan, kualifikatu gabekoen kontratuek izan dute, 230 gutxiagorekin (-%1,5); balio erlatiboetan, berriz, jaitsierarik handiena lehen sektoreko kualifikatuen kontratuetan izan da (-%39,3, -137 kontratu).

Iazko hil beraren aldean, jaitsi egin da kontratazioa okupazio guztietan, laguntzako teknikari eta profesionaletan izan ezik, 1.833 kontratu gehiago egin baitira (+%20,3). Jaitsierarik handiena, guztizko balioetan, ez-kualifikatuek izan dute, 1.727 kontratu gutxiagorekin (-%10); balio erlatiboetan, jaitsiera handiena zuzendarien kontratazioan gertatu da, % 24,2ko jaitsierarekin (-40 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmendu behar da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 21,2ra iritsi da. % 20tik gorako tasa horiek ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondotik. Hala ere, azken hilabeteetan tasa horrek beheranzko joera hartu du.

2024ko ekainean sinatutako kontratuen % 35,3 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino 0,6 puntu gutxiago), % 45,8 emakumeen kasuan eta % 25 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak ez direla borondatezkoak, eta horrek agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa. Kontratu mugagabeen % 30,3 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-balio esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 62,8), beste zerbitzu batzuk (% 49,2) eta administrazio-jarduerak (% 49,1). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 55,5), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 3,8)

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 21,8 Araban sinatu da, % 47,7 Bizkaian eta gainerako % 30,5 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 2.459 kontratu gehiago sinatu dira; bai balio absolutuetan eta bai erlatiboetan gehien igo den Lurralde Historikoa da (+% 19,9). Bizkaian 2.507 kontratu gehiago egin dira (% 8,2 gehiago) eta Gipuzkoan 1.799 kontratu gehiago (+% 9,3).

Kontratuen erregistroa 2024ko ekainean

Aurreko urtearekin alderatuta, Araban 1.911 kontratu gehiago sinatu dira (% 14,4ko igoera); Lurralde Historiko horretan soilik igo da kontratazioa. Bizkaian % 6,8 jaitsi da (2.435 kontratu gutxiago) eta Gipuzkoan 2.760 kontratutan egin du behera (% 11,5 gutxiago).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Ekainean sinatutako kontratuen % 25 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 31,2 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 18,2 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 24,7 egin du gora (2.545 kontratu gehiago), eta, 2023ko ekainarekin alderatuta, % 21,4 egin du gora (+2.263 kontratu).



Kontratuen erregistroa 2024ko ekainean

		Eka-2024	Mai-2024	Eka-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	14.750	14.705	18.020	45	0,31	-3.270	-18,1
	Aldi baterakoa	54.873	48.089	54.887	6.784	14,11	-14	0,0
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
	Mugagabeen %	21,2%	23,4%	24,7%	-2,23		-3,53	
Sexua	Gizona	35.257	31.023	36.436	4.234	13,65	-1.179	-3,2
	Emakumea	34.366	31.771	36.471	2.595	8,17	-2.105	-5,8
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
	Emakumeen %	49,4%	50,6%	50,0%	-1,24		-0,66	
Mugagabea	Gizona	8.024	8.004	9.860	20	0,25	-1.836	-18,6
	Emakumea	6.726	6.701	8.160	25	0,37	-1.434	-17,6
	Guztira	14.750	14.705	18.020	45	0,31	-3.270	-18,1
Aldi baterakoa	Gizona	27.233	23.019	26.576	4.214	18,31	657	2,5
	Emakumea	27.640	25.070	28.311	2.570	10,25	-671	-2,4
	Guztira	54.873	48.089	54.887	6.784	14,11	-14	0,0
Guztira	Gizona	35.257	31.023	36.436	4.234	13,65	-1.179	-3,2
	Emakumea	34.366	31.771	36.471	2.595	8,17	-2.105	-5,8
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
Mugagabeen tasa	Gizona	22,8%	25,8%	27,1%	-3,04		-4,30	
	Emakumea	19,6%	21,1%	22,4%	-1,52		-2,80	
	Guztira	21,2%	23,4%	24,7%	-2,23		-3,53	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.472	4.614	5.108	-142	-3,08	-636	-12,5
	Aldi baterakoa	20.110	17.903	20.341	2.207	12,33	-231	-1,1
	Beste batzuk	45.041	40.277	47.458	4.764	11,83	-2.417	-5,1
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
	LP tasa	35,3%	35,9%	34,9%	-0,55		0,40	
Lanaldi partziala	Gizona	8.831	7.703	8.675	1.128	14,64	156	1,8
	Emakumea	15.751	14.814	16.774	937	6,33	-1.023	-6,1
	Guztira	24.582	22.517	25.449	2.065	9,17	-867	-3,4
	Gizonen tasa	25,0%	24,8%	23,8%	0,22		1,24	
	Emakumeen tasa	45,8%	46,6%	46,0%	-0,79		-0,16	
	Tasa guztira	35,3%	35,9%	34,9%	-0,55		0,40	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	911	31	907	880	2838,71	4	0,4
	Beste batzuk	68.712	62.763	72.000	5.949	9,48	-3.288	-4,6
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
	Prestakuntzakoak (%)	1,3%	0,0%	1,2%	1,26		0,06	
L. historikoa	Araba	15.210	12.687	13.299	2.523	19,89	1.911	14,4
	Bizkaia	33.202	30.695	35.637	2.507	8,17	-2.435	-6,8
	Gipuzkoa	21.211	19.412	23.971	1.799	9,27	-2.760	-11,5
	EAE	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
Gizonak	Lehen sektorea	845	1.400	873	-555	-39,64	-28	-3,2
	Erauzketa-industriak	9	8	9	1	12,50	0	0,0
	Manufaktura-industriak	7.184	6.283	7.587	901	14,34	-403	-5,3
	Energia	3	7	13	-4	-57,14	-10	-76,9
	Ura	389	263	538	126	47,91	-149	-27,7
	Eraikuntza	1.745	1.609	2.063	136	8,45	-318	-15,4
	Merkataritza	3.582	2.996	3.840	586	19,56	-258	-6,7
	Garraioa	3.594	3.465	3.871	129	3,72	-277	-7,2
	Ostalaritza	4.030	4.232	4.292	-202	-4,77	-262	-6,1
	Informazioa eta komunikazioa	3.365	1.888	1.727	1.477	78,23	1.638	94,8
	Finantzak eta aseguruak	114	94	162	20	21,28	-48	-29,6
	Higiezinen sektorea	35	18	28	17	94,44	7	25,0
	Zientifikoak eta teknikoak	874	837	1.078	37	4,42	-204	-18,9
	Administraziokoak	2.623	2.553	3.719	70	2,74	-1.096	-29,5
	Administrazio publikoa	523	443	480	80	18,06	43	9,0
	Hezkuntza	1.009	924	1.157	85	9,20	-148	-12,8
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.749	1.597	1.951	152	9,52	-202	-10,4

Kontratuen erregistroa 2024ko ekainean

		Eka-2024	Mai-2024	Eka-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.099	1.956	2.387	1.143	58,44	712	29,8
	Beste zerbitzu batzuk	419	403	562	16	3,97	-143	-25,4
	Etxeetako jarduerak	63	46	95	17	36,96	-32	-33,7
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	1	4	2	200,00	-1	-25,0
	Guztira	35.257	31.023	36.436	4.234	13,65	-1.179	-3,2
Emakumeak	Lehen sektorea	147	236	139	-89	-37,71	8	5,8
	Erauzketa-industriak	2	2	7	0	0,00	-5	-71,4
	Manufaktura-industriak	2.332	2.206	2.561	126	5,71	-229	-8,9
	Energia	9	5	6	4	80,00	3	50,0
	Ura	55	50	50	5	10,00	5	10,0
	Eraikuntza	183	139	189	44	31,65	-6	-3,2
	Merkataritza	4.687	3.807	4.760	880	23,12	-73	-1,5
	Garraioa	973	812	869	161	19,83	104	12,0
	Ostalaritza	5.684	6.580	6.461	-896	-13,62	-777	-12,0
	Informazioa eta komunikazioa	2.354	1.441	1.199	913	63,36	1.155	96,3
	Finantzak eta aseguruak	163	132	151	31	23,48	12	7,9
	Higiezinen sektorea	57	51	67	6	11,76	-10	-14,9
	Zientifikoak eta teknikoak	886	838	1.029	48	5,73	-143	-13,9
	Administraziokoak	3.017	3.019	4.031	-2	-0,07	-1.014	-25,2
	Administrazio publikoa	705	715	978	-10	-1,40	-273	-27,9
	Hezkuntza	2.872	2.976	3.156	-104	-3,49	-284	-9,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.791	6.091	7.023	700	11,49	-232	-3,3
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.612	1.138	1.576	474	41,65	36	2,3
	Beste zerbitzu batzuk	796	628	1.142	168	26,75	-346	-30,3
	Etxeetako jarduerak	1.031	902	1.074	129	14,30	-43	-4,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	10	3	3	7	233,33	7	233,3
	Guztira	34.366	31.771	36.471	2.595	8,17	-2.105	-5,8
Guztira	Lehen sektorea	992	1.636	1.012	-644	-39,36	-20	-2,0
	Erauzketa-industriak	11	10	16	1	10,00	-5	-31,3
	Manufaktura-industriak	9.516	8.489	10.148	1.027	12,10	-632	-6,2
	Energia	12	12	19	0	0,00	-7	-36,8
	Ura	444	313	588	131	41,85	-144	-24,5
	Eraikuntza	1.928	1.748	2.252	180	10,30	-324	-14,4
	Merkataritza	8.269	6.803	8.600	1.466	21,55	-331	-3,8
	Garraioa	4.567	4.277	4.740	290	6,78	-173	-3,6
	Ostalaritza	9.714	10.812	10.753	-1.098	-10,16	-1.039	-9,7
	Informazioa eta komunikazioa	5.719	3.329	2.926	2.390	71,79	2.793	95,5
	Finantzak eta aseguruak	277	226	313	51	22,57	-36	-11,5
	Higiezinen sektorea	92	69	95	23	33,33	-3	-3,2
	Zientifikoak eta teknikoak	1.760	1.675	2.107	85	5,07	-347	-16,5
	Administraziokoak	5.640	5.572	7.750	68	1,22	-2.110	-27,2
	Administrazio publikoa	1.228	1.158	1.458	70	6,04	-230	-15,8
	Hezkuntza	3.881	3.900	4.313	-19	-0,49	-432	-10,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.540	7.688	8.974	852	11,08	-434	-4,8
	Arte- eta jolas-jarduerak	4.711	3.094	3.963	1.617	52,26	748	18,9
	Beste zerbitzu batzuk	1.215	1.031	1.704	184	17,85	-489	-28,7
	Etxeetako jarduerak	1.094	948	1.169	146	15,40	-75	-6,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	13	4	7	9	225,00	6	85,7
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
Gizonak	<>	3	1	1	2	200,00	2	200,0
	Zuzendaritza	81	111	108	-30	-27,03	-27	-25,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.789	3.314	3.560	1.475	44,51	1.229	34,5
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.710	3.270	5.097	1.440	44,04	-387	-7,6
	Administrazioko langileak	1.512	1.252	1.490	260	20,77	22	1,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	7.487	7.024	8.037	463	6,59	-550	-6,8

Kontratuen erregistroa 2024ko ekainean

		Eka-2024	Mai-2024	Eka-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	201	304	240	-103	-33,88	-39	-16,3
	Industriako kualifikatuak	3.696	3.281	4.109	415	12,65	-413	-10,1
	Operadoreak	4.087	3.728	4.407	359	9,63	-320	-7,3
	Kualifikatu gabeak	8.691	8.738	9.387	-47	-0,54	-696	-7,4
	Guztira	35.257	31.023	36.436	4.234	13,65	-1.179	-3,2
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	44	53	57	-9	-16,98	-13	-22,8
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.090	5.305	5.486	785	14,80	604	11,0
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.493	2.418	4.104	1.075	44,46	-611	-14,9
	Administrazioko langileak	2.410	2.038	2.604	372	18,25	-194	-7,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	14.272	13.742	15.024	530	3,86	-752	-5,0
	Oinarrizko kualifikatuak	11	45	20	-34	-75,56	-9	-45,0
	Industriako kualifikatuak	416	411	444	5	1,22	-28	-6,3
	Operadoreak	737	683	808	54	7,91	-71	-8,8
	Kualifikatu gabeak	6.893	7.076	7.924	-183	-2,59	-1.031	-13,0
	Guztira	34.366	31.771	36.471	2.595	8,17	-2.105	-5,8
Guztira	<>	3	1	1	2	200,00	2	200,0
	Zuzendaritza	125	164	165	-39	-23,78	-40	-24,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	10.879	8.619	9.046	2.260	26,22	1.833	20,3
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	8.203	5.688	9.201	2.515	44,22	-998	-10,8
	Administrazioko langileak	3.922	3.290	4.094	632	19,21	-172	-4,2
	Zerbitzuetako kualifikatuak	21.759	20.766	23.061	993	4,78	-1.302	-5,6
	Oinarrizko kualifikatuak	212	349	260	-137	-39,26	-48	-18,5
	Industriako kualifikatuak	4.112	3.692	4.553	420	11,38	-441	-9,7
	Operadoreak	4.824	4.411	5.215	413	9,36	-391	-7,5
	Kualifikatu gabeak	15.584	15.814	17.311	-230	-1,45	-1.727	-10,0
	Guztira	69.623	62.794	72.907	6.829	10,88	-3.284	-4,5
ABLE	Gizonak	8.307	6.757	7.120	1.550	22,94	1.187	16,7
	Emakumeak	4.539	3.544	3.463	995	28,08	1.076	31,1
	Guztira	12.846	10.301	10.583	2.545	24,71	2.263	21,4
Pertsona-kopurua	Gizonak	26.589	22.337	28.183	4.252	19,04	-1.594	-5,7
	Emakumeak	24.881	21.488	26.733	3.393	15,79	-1.852	-6,9
	Guztira	51.470	43.825	54.916	7.645	17,44	-3.446	-6,3
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	20.578	19.393	22.467	1.185	6,11	-1.889	-8,4
	Batxilergoa	13.236	9.863	12.887	3.373	34,20	349	2,7
	LHko ikasketak	10.081	7.253	10.719	2.828	38,99	-638	-6,0
	Unibertsitate-ikasketak	7.411	7.178	8.587	233	3,25	-1.176	-13,7
	Atzerritarra	9.399	9.587	9.832	-188	-1,96	-433	-4,4
	Bertakoa	42.071	34.238	45.084	7.833	22,88	-3.013	-6,7
	<>	25	26	25	-1	-3,85	0	0,0
	Aberrigabea	71	60	50	11	18,33	21	42,0
	Europako Erkidegoa	696	695	794	1	0,14	-98	-12,3
	Erkidegokoa ez den Europa	651	670	772	-19	-2,84	-121	-15,7
	Txina	109	140	134	-31	-22,14	-25	-18,7
	Japonia	6	6	3	0	0,00	3	100,0
	Asiako beste herrialde bat	483	514	537	-31	-6,03	-54	-10,1
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.018	997	1.029	21	2,11	-11	-1,1
	Afrikako iparraldea	1.165	1.503	1.299	-338	-22,49	-134	-10,3
	Ipar Amerika	21	15	17	6	40,00	4	23,5
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.154	4.958	5.169	196	3,95	-15	-0,3
	Ozeania	0	3	3	-3	-100,00	-3	-100,0
	Atzerritarrak guztira	9.399	9.587	9.832	-188	-1,96	-433	-4,4